

NICASIO LANDAREN MANTALA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Iruñea, 1830eko urriaren 11. Nicasio Landa jaio zen. Landak medikuntza ikasketak egin zituen; 1854an atera zuen lizentzia eta bi urte geroago doktoratu zen Madrilgo Unibertsitatean. Epidemiologo lan nabarmena egin zuen XIX. mendearen erdialdeko kolera pandemiak geldiarazten. Askotariko gaiak jorratu zituen bere liburuetan: giza eskubideak, etnografia, arkeologia, osasungintza publikoa, geologia... Baina, nagusiki, alor militarrean erabili zituen medikuntza ezagutzak.

1864an, Iruñean bertan eta Joaquín Agulló Ripaldako kondearekin batera, Espainiako Gurutze Gorria sortu zuen. Eta 1870ean Frantzia eta Prusiaren arteko gerrara joan zen erakundearen Espainiako ordezkariatzako kide. Bertan ikusi eta ikasitakoak etxean aplikatzea egokituko zitzaion berehala, azken gerra karlistan (1872-1876).

Landa doktorea konturatu zen zaurituak gatazka eremutik ospitalera edo toki seguru batera eramatea zaila zela zenbaitetan. Arazoa are larriagoa zen eremu menditsuetan eta baso itxietan, soilik oinez, eta nekez, ibil zitezkeen tokietan. Gaia teoriarik landuta zeukan alde aurretik; 1865ean, *El mandil de socorro* liburuan, gerra zaurituak mugitzeko sistema egokia azaldu zuen. Eta 1870eko hamarkadan sorospen mantal hura, aurrerantzean,



Gurutze Gorriko kideak, Nicasio Landa (1830-1891) mediku nafarrak asmatutako ohatila eramangarria nola erabili erakusten.

GURUTZE GORRIA

Landa mantala esango zitzaiona, gauzatu eta gudu-zelaian erabiltzen hasi zen.

Oihal zati batek, egurrezko egitura soil batek eta zenbait uhalek osatzen zuten askakizuna. Hari esker, bi pertsonak nahiko erraz eraman zezaketen zauritua. Atzeko sorosleak mantala janzten zuen eta aurrekoak azpiko makilari eusten zion. Bien artean zauritua eserita zihoan eta, horregatik, tramankulu sinplea egokiagoa zen zauri arinak zituzten soldaduak garraiatzeko, zauritu larrienak eramateko baino. Baina, zauriturik gabe, mantala gainean eramatea askoz erra-

zagoa zen Gurutze Gorriko kideentzat, ohatila zurrin astunekin batetik bestera eramatea baino. Zaurituak errazago eramateaz gain, haiengana lehenago iristea ahalbidetzen zuen Landa mantalak.

Mende erdiz, Lehen Mundu Gerran zaurituak garraiatzeko sistemak hobetu ziren arte, mantala erabili zuten Gurutze Gorrian alde bateko zein besteko soldaduak toki malkartsuetan eramateko. Bere idazlanean, Landa doktoreak luze hausnartu zuen neutraltasunari buruz. Eta bere mantalak zaurituak neutralki tratatzen lagundu zuen gudu-zelaian. ■

Txinako Harresi Handia txikitzen ari da

Mitorik zabaldu eta onartuenetakoa da Txinako Harresi Handia espaziotik ikus daitekeela. Baina mito faltsua da; Neil Armstrongek berak adierazi zuen Ilargitik kontinenteak, aintzira handiak eta bestelako elementu naturala batzuk bereiz zitezkeela, baina handik ez zela gizakiak eraikitako egiturarik antzematen.

Bada, harresia lurretik bertatik ikus-tea geroz eta zailagoa izango dela dirudi. UNESCOk monumentua babestu behar

dela dio; Den Xiaopingek "Maita dezagun gure Txina, zaharberritu dezagun gure harresia" kanpaina abiarazi zuen 1984an. Alferrik. Txinako Kultura Ondarearen Estatu Administrazioak joan den ekainean jakinarazi zuenez, jatorrizko 21.000 kilometroetatik 2.000 baino gehiago erabat desagertu dira. Eta beste asko galtzen dira urtero. Herritar pobreenek betidanik kendu izan dizkiote harriak beren etxeak eraikitzeko eta, az-

ken urteotan, harresia milaka zati txikiagotan desgaiten ari dira turistek saltzeko. Horien joan-etorriek eta euriteek ere ez diote mesederik egiten egiturari.

Shandong probintzian 61 kilometroko zatia zaharberritzeko aurrekontua egin dute: 208 milioi yuan (30 milioi euro). Biderketa eginez erraz ondoriozta daiteke Txinako Harresi Handia osorik eta behar bezala babestea ezinezkoa dela. ■